

# GEZURREZKO UDABERRIA

Adiskidea etorri zitzaidan, bere gurasoen baserrira osterata eginda, eta bere eskuetan sagartxo azal leun gorrixkak zekarzkin, eta esan zidan aurreko egunean nola artu zituan bere erriko sagasti batean.

Abenduaren lenengo egunetan geunden eta, ala ere, negua urruti zala zirudian.

Odei meak, zeru urdiña, eguzki alai ta dirdiratsua, egualdi bigun ta epela, aize gozoarekin. Neguari, bere sasoiari aurkeztutzea, aitzu egin zitzaiola esan zitekean, eta bere ondorengo lañoak, ekaitzaizeak, euri-zaparradak, ta kaskabarrak, bizi ziranik ere etzuen adierazten.

Urian, enparantzeta loretegieta, umetxoak ara ta onera zebiltzan, jantzi zuridun neskameen artean. Geienak, oraindik, udako soñeko ariñak zituzten. Batzuek, soñeko lodiekin izerdi-patsetan zeuden, ta bat edo beste, buruan kolore bizidun txanoak zituztelarik. Beren amonak azkenengo udako arratsalde beroetan egin zituzten txanoak, eta gogoz-kontra jantzitakoak.

Beste gauza bat. Urian ez genekigun mendi ta basoetan jazozen zanaren herririk. Zuaizak, orriak erori ta larru-gorritu ziranean, berriro nabaitu zuten beren erraietan, eguzki maitasun beroaren azpian, bizi berriaren ernetzea. Berbizkundera asi zan, zuaizten biotzetatik, adarretatik zear abarretaraño arin-arin, ta kimu danetan bul-tzadaz, atera zituan murgil bigun ezeak gerotxoago orri ta lora zurri-gorriak izan ziranak. Gero, lora-orriak, aize epel bigunak eraman zituan, eta or-emen frutu txikiak agertu ziran.

Nere adiskideak, arritutako ume bat bezela azaldu zizkidan gauza guzti aiek. Bere errian ez zan inor oroitzen lenago beste-orrenbeste gertatu zanik. Eta begiak zabal-zabalik, txundituta, erakusten zizkidan sagartxo azal leunak.

Baña, geroago azaldu zan arrigarriagorik; txoriak, kabiak egin zituzten! Au, geiegia zan, Txorieri orrela burua naastu? Ain abere txo argiak, ain azkarrak, Ezin zitekeana zirudian, baña egia zan.

Txoritxoak bikoiztu ziran; gauza aiek ikusita, uste izan zuten beste udaberri bat bizi bear zutela.

Jaungoiko onak negu gogorra barkatu balie bezela, beren gorputz txiki ariñetan bero berria nabaitu zuten, eta esker ona kantatzeko naia sortu zitzairen.

Laguna billatu ta alkarrekin asten dira, kabi berria egiteko, orbeltxoak eta oroldi bigunak inguratzen. Egiaz, gauza arrigarria!

Nere adiskideak, gauza auek esan zizkidanean, pentsatu nuan: etorkizun illuna txoritxo gaixoentzat. Iruditu zitzaidan, negu gogorra basora etorrenean, igaroko zirala milla gauza negargarri, kabitxo egin-berriak izozten ziranean, txoritxo gaxoen alaitasuna ilzoriar zalarik, kantu gozoak ixiltzen ziranean...

\* \* \*

Kabia amaituta dago.

Panpoxa, bere mokotxoakin, azkenengo ikutu batzuek egiten ari da; orritxo zuzenduaz, belartxo bat azpikoakin josiaz zozo-belar pixka bat arro-arro ipiñiaz: eta Galai, abar baten ertzean, bere burua jira-biraka, zoriontsu kantatzen ari da, bere lagunaren egin-kizunak ikusiaz.

Itz eta itz diardute, ixildu gabe, beren izkuntza zoragarrian. Batez ere Panpoxa. Bere lanak ez dio izketan egitea galerazotzen. Ekin da ekin, berritxukerian. Noizean bein begiratzen dio Galai'ri, samurtzen da, eta utzitzen dio asti pixkak. Asti txikia, txikiegia Galai'k, bere barneko gauzak, bere poza, bare alaitasuna azaltzeko, ta ifioiz ezin adierazirik bere iritzia, Panpoxa'k beti itza kentzen diolako. Ain zuzen ere, denboratxoa da, an, urrutian, agertu diran odei beltz itxusi batzueri begiratzeko esan nai liokela, baña, ezin! Begiak erdi-itxita Panpoxa'n jardunari adi-adi dagoala agertu nai du.

\* \* \*

Egia da bi egun auetan ortzia goibel dagoala. Lorez jantzitako abarrak ikaraz daude aize otzez. Odei moltzo aundiak arin dabilta, batera ta bestera, zerua auts-kolore tristeakin zikinduaz,

Galai eta Panpoxa, abartxo baten gañean daude, buruak alde banatara dituztela, begi larriekin, odei astun aien joan-etorriak ikusten.

—Euria egin bear duala uste det, dio Galai'k.

Panpoxa'k ez dio erantzuten. Egualdia aldatu zan egunetik ez du berriketan egiteko gogorik, Aopean zerbait esan da kito.

Egun gutxi geroago, ortziko iturriak ideki ziran, ta euri otzak, busti zuan basoa. Aize gogor errukigabeak astindu zituan bazterrak, eta laño illun lanbrotsua jetxi zan mendi tontorretatik ibarrera, dana estalduaz.

Ura, negua zan. Berandu eldu zan, baña orregaitik len da geroakoak baño gogorrago etorren, bere eginkizun gaiztoekin jabetzen, eta galdu zituan denborak irabaztera.

\* \* \*

Kabi busti-bustia aterpetzat dutela dago gure bikotea, otzez dararaka. Aserreka ari dira biak, kurrixka batean.

—Zuk dezu erru guztia —esan zion Panpoxa'k.

—Baña, ene txoria...

—Zaude ixillik! Nori gogoak eman lezaioke, neguaren biotzean kabia egitea? Zu bezelako buru-gabe bati. Eta orretarako, abere baten erara lana eragin didazu. Orretarako! Ikusi zazu zure eginkizuna.

—Baña, ene txoritxo... —dio Galai'k.

—Ixillik zaude. Basoko txoririk burugabeena zera ta.

—Baña, beste txori batzuek ere...

—Beste batzuek, beste batzuek! —erantzun zion Panpoxa'k abotsa garratuaz—. Zuri zer ajola zaizu besteak egiten dutenagaitik? Beste batzuek, baita gauza ederraskoak ekarri ere, emazteari kabira... Beste batzuek, beste batzuek... Egia esan, ez dakit zergaitik ezkondu nintzan zurekin. Neure gurasoen etxean ni bizi nintzan bezela bizi-ta!

Galai beti ixillik. Bere luma bustiak astindu-ta Panpoxa'ren ixkanbilla entzuten jarraitzeko asmoa artu du.

Gauza askozaz oroitzen da. Ondo gogoan du, noiz eta nola etorri zitzaion Panpoxa, aunitz koipekeri egiñaz. Oroitzen da, oraindik, eguzkipean alkarrekin igaro zuten arratsalde bero artan, nolako saltotxoak egiten zituan. Jo alde batera eta jo bestaldera, belar ta orbelak bilduaz, berari pozez ekartzeko. Gero, asi zan belartxoak bata besteakin josten, kabitxo txiki-txiki bat egiñaz; jostallu bat bezelako kabitxo. Dantzari eman zituan saltotxo batzuek, eta egaz joan zan loraturik zan baso-sagar baten abarrera. Andik deitu zidan eresi gozokin...

Orain, bere laguna atsekabetua ikusten zuan; gaizki erten zuan gauza baten erru guztia bere gañera itzuliaz. Zer egingo degu ba? Ongi pentsatu ezker txori guztiak berdiñak dira.

Geiago kukurtu zan, begiak itxi zituan, eta Panpoxa'k zuan umore txar guztia bere belarrietara ixuri arte entzuten jarraitzeko asmoa artu zuan. Ba-zitekean illeta luze aiek logura apurren bat ematea...

*Juan Martin Zabala'k erderaz egiña ta  
Azpeitia'tar Julene'k euskeratua.*